

POETA IZAN NAHI

Doinua: Amurizaren Euskal Herritik Aparte...

1

Poeta izan nahi nuke,
baina badut nahiko neke.
Hitzek balio gutxi daukate,
saltzen dira merke.
Ispirazioen eske,
nabil aspaldi jo ta ke.
Poesi beltza egin ezean,
zer egin daiteke?

2

Nigarrez dakust mundua,
badu zertaz samindua.
Deaburikan luziferrenez,
bai dago zaindua.
Badauka nork agindua,
kargak ezin arindua.
Dirua Jainko den bitartean,
indarra Saindua.

3

Gorrotoa beti adi,
maitasuna aldiz nagi.
Laguntza errez ukatzen zaio,
lagun hurkoari.
esanez —hor konpon hadi,
ezina ba daukak-n sari—.
Sentimentuen kutxa bihurtu,
dugu suge kabi.

4

Anairik ezin extima,
ahaztu dugu katexima.
Geure burua baizik ez dugu,
maite zer lastima!!!
Bizkarra nori arrima,
lotsa gabeei hau grima!!!.
Bihotzik ezak saldu arazi,
bait digu arima.

5

Osatzen gara endredoz,
errez aldatuaz "kredoz".
Ezin daiteke gehiegi fida,
zenbait aho beroz...
Mundua bete da eroz.
Zentzu gabeko bezeroz.
Ekologia saldu dugu ta,
kutsadura eros...

6

Arraina nola ezkatuz,
gizona jantzi ezpatuz.
Harro sentituz indarkeriak,
duen arrakastaz.
Ez dakit nolako pastaz,
eginak gauden gu "kastaz".
Itxaropena hiltzeko ere,
ginateke kapaz.

7

Mireesten dugu "ordena"
nori zor zaio lorpena?
Demokrazien diktaduraz gaur,
sarri datorrena.
Juztiziari gorenena,
lapur ttikia kondena.
lotsa bera da lotsaren lotsez,
lotsez dagoena.

8

Hainbat negar eta antsi,
dagoenik ezin ahantzi.
Giza balorez bilustu gara,
piztienaz jantzi.
Bekaizkeriaren untzi,
elkartasun oina suntsi.
Etsipen beltzen super merkatuz,
poz dendak irentsi.

9

Gaueko izar eztiak,
txorien goiz abestiak.
Gozamenezko pitxi zituen,
gogo amestiak.
Ilargi ta eguzkiak,
egun sentiko izpiak.
Goibeltasunen islada zaizkit,
bilaka guztiak.

10

Bizkarrean dudan zama,
luma harturik lan arma.
Nola goratu izadi eta,
ortzearen xarma?
Tristuraz ezin dut asma,
saiatu arren ai ama!!!.
Poeta izan nahi eta ezin,
horra nire "drama"!!!

XANTI ZABALA
"Lexo"

Oharra Bertso hauek, 1991-ko Hernaniko "Joxe Legarreta" Sariaren lehiaketan, irabaztun suertatu ziren.